

Envases-eko LABeko Enpresa Komiteak antzinatasunaren soldata-eskala bikoitza ezabatu du hitzarmen berriaren bidez

Envases-eko (Laudio) langileek bi greba-egun egin zituzten, eta ekoizpena gelditzea eta fabrika ixtea lortu zuten. Horren bidez, aurrerapauso handiak lortu ahal izan dituzte hitzarmen berri honetan.

Negoiazioak hasi zirenean, plantillak gutxieneko batzuk finkatu zituen. Horien artean, batez ere, antzinatasunari irtenbidea ematea, langile guztientzako bosturtekoak modu berean eta mugarik gabe sortzea onartuz. Duela 10 urte, ELAk osatutako batzordeak bosturtekoen izoztea sinatu zuen 4 bosturteko baino gutxiago zituzten langileentzat, eta antzinatasunaren kobrantza kendu zuen kontratazio berrietarako. Bitartean, 4 bosturteko baino gehiago zituzten langileek mugarik gabe bosturtekoak sortzen jarraitzen zuten.

Aste hauetako borroka-prozesuaren eta negoziazioaren ondoren, plantilla osoarentzat mugarik gabeko bosturtekoen sorrera berreskuratzea lortu da, diskriminazioarekin eta soldata-eskala bikoitzarekin amaituz. Oso urrats garrantzitsua da gaurko, biharko eta etorkizuneko Envases-eko langileentzat. Antzinatasunaz gain, soldata-bermea lortu da KPlaren gainetik, eta hobekuntzak eskuratu dira eskubide sozialetan, hitzarmen honetan inolako atzerapenik egon ez delarik.

Beste aurrerapen garrantzitsu bat kontratatutako langile berriei kategoria baxuagoa ez ezartzea izan da, horrek are gehiago prekarizatzen baitzituen Envases-eko baldintzak. Langileek indar-posizio argia mantendu izan dute puntu honi dagokionez.

Horrekin guztiarekin, borroka gure lan-baldintzak defendatzeko bidea dela nabarmendu nahi du sindikatuak. LABek langileen determinazioa eskertzen du, haien borroka izan baita aurrerapen eta hobekuntza guztiak lortzeko indarra.

Euskal Herrian, 2023ko martxoaren 9an